

Euskal Herriaren eta zinemaren arteko lokarriak jorratuko ditu Atalantek

'Herriko plazatik... pantailara' festibala iraganen da ekainaren 16tik 19ra arte

Lutxi Fourcade / Baiona

Atalante zinemagela ikerketak bultzatzen ari da azken hamar urteotan zinema arloan. Arte eta entseguko filmak zabaltzeaz gain, Euskal Herriari buruzko festibala antolatzen ohi du ekainean. Aurten hirugarren aldia izanen da, eta hari nagusia izanen da Gernikako bonbardaketaren gaiak zer toki duen zineman.

HERRIKO PLAZATIK... PANTAILARA festibala antolatuko du Atalante zinemagelak datorren astean. Hiru hitzordu finkatu ditu Baionako gelan, eta azken ekitaldia egingen da Jatsuko pilota plazan. Elkarteak ekimena abiatu zuen duela hiru urte, zinemaren eta kulturaren arteko harremanak ikertzeko. «Euskal kultura nabari da pinturan, literaturan, eskulturan, eta abar; interesgarria iruditu zaigu euskal kulturaren eta zinema ekoizpenaren arteko lokarriak lantzea, ikusteko euskal zinema bazegoenetz», azpimarratu zuen Ramuntxo Garbizuk. Euskal zinemagileak gonbidatzeaz gain, elkar-teak erakutsi nahi ditu kanpoko zinemagileak Euskal Herria filmatzen. Esaterako, Otar Iosselinani zinemagilea gonbidatu zuen duela bi urte.

Gernikaren bonbardaketa izanen da aurtengo festibalaren hari nagusia. «Joan den urtean, *Au pays des basques* filmaren lehen irudiak begiratzuz, Gernikako Arbola ikusi genuen, eta berehala pentsatu genuen gure ikerketak Gernikatik pasatu behar zuela», azpimarratu zuen Garbizuk. Urte osoan elkarteko kideak Gernika filmatu dutenen bila aritu dira, eta zinemagile handien izenak aurkitu dituztela azpimarratu zuen Garbizuk, hala nola Emir Kusturika, Robert Flaherty eta Laurence Boultin.

Bi lekukotasun hunkigarri

Alabaina, zinemagile ospetsuen obrak eskuratzea ezinezkoa izan baita, Atalante zinemagelak beste lan interesgarri batzuk zabalduko ditu festibalaren kariatara. Nemesio Sobrevila Bilboko arkitekto eta zinemagilearen *Gernika, al socorro de los ni-*



BOB EDME

Atalanteko kideek festibalaren berri eman zuten atzo Baionan.

Pantailatik herriko plazara

■ AHETZE eta Getaria ondotik, Jatsu herriak aterpetuko du *Euskal Herria eta Zinema* festibalaren azken hitzordua. Besta iraganen da herriko plazaren inguruan, eta euskal kultura goraiatua izanen da egun osoan, ekainaren 19an, hain zuzen.

Arratsalde osoan, Xirimola elkar-teak animazio musikalak eskainiko ditu. Besteak beste, Patxi Pe-

rezen Batbiru taldeak mutxikoak emanen ditu, Soinu Tiki elkarteko musikariek alaiturik. Bestalde, Jatsuko elkar-teak janaria prestatuko dute. Azkenean, Jojo eta Ramuntxo taldeak kantaldi bat emanen du; prestatzen ari diren hirugarren disko kantuak eskainiko dituzte.

Alabaina, gauaren une garrantzitsuena *Ramuntxo* filmaren

zabaltzea izanen da. Rene Barberis zinemagileak egin zuen film hori, Saran, 1937an, Pierre Loti-ren liburua oinarritzat harturik. Filmak kontatzen du Euskal Herriko herri txiki bateko eguneroko bizia.

Bigarren aldia da Atalante elkar-teak *Ramuntxo* filma zabaltzen duena kanpoan. Izan ere, film hori hautatu zuen lehen ekitaldian,

baina aro ezin txarragoa izan zen. «Egun batez erori zen hilabete oso batean erortzen ohi den euria, baina gaualdi zoragarria izan zen», azpimarratu zuen Ramuntxo Garbizuk. Alabaina, antolatzaileek espero dute aldi honetan aro ederra izanen dutela. «Bestenaz, zin dagit film hori ez dudala sekulan zabalduko kanpoan!», azaldu zuen.

ños vascos eskainiko du, bi bertsiotan. Sobrevilak 1937an grabatu zuen doku-

mental hori, bonbardaketaren ondotik. Lehendabizi, oinarritzko bertsiok zabalduko dute, zinemagilearen adierazpen bortitzekin. Ondotik, Segundo Caza-lisen *Los hijos de Gernika* bertsiok emanen dute. Nemesio Sobrevilaren irudiak oinarritzat hartuz, Cazalisen beste komentario batzuk egin zituen, Caracasko euskal komunitateak eskaturik. Bi dokumentalak ostegun-ean emane dira, eta ondotik

mintzaldi bat izanen da bi bertsiok aztertzeko.

Festibalaren bizkarrezurra

RAMUNTXO GARBIZU

■ ■ ■ «*Au pays des basques* filmean Gernikako Arbola ikusi eta pentsatu genuen gure ikerketak Gernikatik pasatu behar zuela»

Gernika izan arren, beste euskaldun batzuen ekoizpenak ere ikusiko dira. Lehendabizi, Atalantek erakutsiko du Juanma Bajo Ulloaren *Airbag* filma, ostegun arratsean. Filmak bi milioi ikusle izan ditu Espainian. Baionan espainierazko bertsiok ikusiko da ingelesezko

azpitoluekin. Gaueko lehen zatian, Russel Rousen *La caravane vers le soleil* filma zabalduko da. Ostiralean, Vic-

tor Erice bizkaitarraren *El sol del membrillo* filma zabalduko da. Film horrek bi sari irabazi zituen Cannesko Zinemaldian 1992an.

Azoka elkarteak kultur emanaldiak eskaintzen ditu Donibane-Lohizunen

■ Zazpigarren Euskal Disko eta Liburu Azoka iraganen da datorren larunbatean

Lutxi Fourcade / Baiona

AZOKA elkarteak aurten ere Donibane-Lohizuneko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu eta prestatu du, zazpigarren aldia. Ekainaren 12an iraganen da Urdazuriko kiroldegian, Donibane-Lohizunen. Animazio franko izanen da egun osoan, eta mugaz bi aldeetako 51 bat argitaletzek parte hartuko dute hitzorduan. Elkarte-ko lana goraiatzeko, hiri-ko kargudun politikoei eta Eusko Gobernu-ko ordezkariak estreinatuko dute azoka eguerditan. Besteak beste, Mari Karmen Garmendiak parte hartuko du ekitaldian.

Hitzordu bakarra finkatu beharrean, Azoka elkarteak hainbat kultur emanaldi antolatu ditu. Arrats honetan, elkar-teak gonbidatu ditu Euskaren Gizarte Erakunde-ko Kontseiluko Jose Jabier Iñigo eta Xabier Mendigurren. Urratsez urrats kon-tatuko dute Kontseiluaren ibilbidea, eta hilabete honetan 600 talde baino gehiagok sinatu *Bai Euskarari* kanpainaren eta Plan Estrategikoaren berri emanen dute. Joan Mari Torrealda idazleak hitzaldi bat eskainiko du ostegun arratsean, Ravel auditoriumean. *Euskararen historia beltza* berak idatzitako liburua oinarritzat harturik, gai horren inguruan ariko da. Ostiralean, Goraki abesbatzak kantatuko du Donibane-Lohizuneko eliza nagusian.